

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

3104

AGINDUA, 2018ko ekainaren 8koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez hasierako onarpena ematen baitzaio Gorbeiaiko eremuaren Natura Baliabideak Antolatzeko Planari eta jendaurrean jartzen baita.

2016ko ekainaren 30eko Aginduaren bidez, erabaki zen hasiera ematea Gorbeiaiko Natura Baliabideak Antolatzeko Plana onartzeko espedienteari.

Arabako Foru Aldundiak planaren gaineko txostena egin du, eta, gero, entzunaldi-izapidea ere bete du, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 7.b) artikulua betez.

Naturzaintza-Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Aholku Kontseiluak 2018ko ekainaren 7an egindako deialdian, plan horren berri eman zen, eta onartu egin zen, 2018ko ekainaren 8an emandako txostenak egiaztatzen duenez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 7.c) artikulua ematen didan eskumena dela bide (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindua ematea hasierako onarpena eman dakion Gorbeiaiko eremuaren Natura Baliabideak Antolatzeko Planari.

Bigarrena.– Gorbeiaiko Parke Naturalaren Natura Baliabideak Antolatzeko Plana jendaurrean jartzea, 60 egunez, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Interesdunek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (<https://euskadi.eus/natura>) kontsultatu ahal izango dute dokumentu hori.

Era berean, erakunde hauetan ere aztertu ahal izango da dokumentua:

– Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.

– Zeberio, Areatza, Artea, Zeanuri eta Orozkoko udalak, Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta Urkabustaiz, Zigoitia, Zuia eta Legutioko udalak, Arabako Lurralde Historikoan.

Alegazioak, iradokizunak eta oharrak, ahal dela, baliabide elektronikoaren bidez bidaliko dira Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 8a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.